

32/2008 DEKRETUA, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena.

Euskal Herriko Autonomi Estatutuak, bere 16. artikuluan ezartzen du «Konstituzioaren lehen Xedapen Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren kompetentziarekin dago, Konstituzioaren 27. artikuluan eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149.1.30. artikuluan Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektioari kalterik egiteke».

Kualifikazioei eta lanbide-heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak lanbide-heziketa, kualifikazio eta egiaztatzeen sistema integrala arautu du, eraginkortasunez eta gardentasunez erantzuteko asmoz eskari sozial eta ekonomikoei, prestakuntza-modalitate jakin batzuk prestatuz.

Lege horrek emandako definizioaren arabera, lanbide-heziketa prestakuntza multzoa da, zeinaren bidez lanbide ezberdinetan aritzeko, enplegua lortzeko eta gizarte, kultur zein ekonomi bizitzan parte hartzeko gaitasuna lortzen baita; horrez gain, eta betiere lan egiteko gaitasunak eduki eta eguneratze aldera, lanbide-heziketaren barruan ondokoak ere jasotzen dira: hasierako lanbide-heziketaren irakaspenak, langileak lehenengoz laneratzeko nahiz berriz laneratzeko ekintzak eta enpresek ematen duten etengabeko prestakuntza, langileei aukera emateko gaitasun profesionala eskuratzeko eta uneoro berritzeko.

Bestalde, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak xedatu zuen Gobernuak ezarriko dituela, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ostean, lanbide-heziketako ikasketei dagozkien tituluak eta horietako bakoitzaren curriculumaren oinarriko ezaugarriak. Lege horrek hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa arautzen du, eta erdi eta goi mailako prestakuntza-zikloen multzo gisa definitzen du lanbide-heziketa; ziklo horien bidez, hain zuzen, lan-esparruko jardunerako prestatzen dira ikasleak, bizitzan zehar gerta daitezkeen lan-aldaketetara egokitzen laguntzen zaie eta garapen pertsonala eta herritartasun demokratikoa indartzen dute. Lege horren bidez, gainera, lanbide-heziketara sartzeko modua are malguagoa izango da, bai eta lanbide-heziketako azpisistema ezberdinen arteko erlazioak ere. Bestalde, bizitza osoko ikasketa ere sustatzen du, gazteei hezkuntza osoa eskainiz, hau da, egungo gizartean beharrezkoak diren ezagutzak eta oinarriko gaitasunak ematen dituen hezkuntza baina, aldi berean, ikasten jarraitzeko nahia eta beren kabuz ikasteko gaitasuna sustatuz. Gazte eta helduei aukera ematen die ikasketak eta prestakuntza familiako ardurekin, lanarekin edo bestelako jardurekin bateratzeko.

Titulu berriek eta horiek eskuratzeko irakaspenak ezagutzaren gizarteak dituen beharrezko ondoriozkoak dira, kontuan hartuta gizarte honek lehiakortasuna, lana lortzea, lan-aldaketa eta kohesioaren eta gizarteratzearen sustapena hartzen dituela oinarri gisa pertsonen interes eta gaitasunetara egokituz. Ekoizpen-sistemak eskatzen duen prestakuntza eman nahi zaie pertsonari eta, horrez gain, lanbide-heziketako tituluak lan-merkatuaren errealitateari hurbildu.

Lanbide-heziketako tituluek sistema sozioekonomikoaren premien ondorioz lan-munduan eskatzen diren lanbide-profilak sortu beharko dituzte. Izan ere, honakoek zehazten dituzte aipatutako profilak: gaitasun orokorrak; gaitasun profesional, pertsonal eta sozialak, eta tituluari jasotzen diren kualifikazioen eta Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko gaitasun-unitateen arteko erlazioa.

Lanbide-heziketaren eskaintza, sarbide, onarpen eta matrikulari malgutasun handiagoa eman zaie, izan ere, helburua da teknikariaren eta goi mailako teknikariaren tituluak eskuratzeko irakaspenek aukera eman dezatela beharizan eta interes pertsonaletara egokitzeko prestakuntza-bideak eratzeko eta prestakuntzatik lanera eta lanetik prestakuntzara bidea zabaltzeko.

Dekretu honen helburua da prestakuntza-zikloek eduki behar duten egitura, antolaketa eta arauak ezartzea eta, era berean, ziklo horietako tituluak eta curriculuma Euskal Autonomia Erkidegoan garatzea.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 19. artikulutik 22. artikulura bitartean ezartzen diren tramiteak gauzatu dira.

Hori dela bide, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko otsailaren 26an egin-dako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta ezarpen-eremua.

Dekretu honek hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa Euskal Autonomia Erkidegoan garatzeko antolamendua eta araudia ezarri du.

2. artikulua.– Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren helburuak.

1.– Hezkuntza-sisteman, Lanbide Heziketak helburuak hauek ditu: eremu profesional jakin batean jarduteko prestatzea; bizitzan zehar gertatzen diren lan-aldaketetara egokitzen laguntzea; garapen pertsonalean laguntzea, herritartasun demokratikoaren jardunean; hezkuntza-sisteman, enplegurako lanbide-heziketan, eta bizialdi osoko ikaskuntzan aurrera egiteko aukera ematea.

2.– Pertsonak prestatzeko, oso garrantzitsua da zenbait jarrera eta arau ematea lanbide-jardunean ingurumena errespetatzeko, segurtasunerako eta lan-arriskuen prebentziorako arauak betetzeko, norberaren jardunaren kalitatea, etengabeko hobekuntza eta joera ekintzailea indartzeko.

3.– Horretaz gain, hezkuntza-sisteman, Lanbide Heziketaren helburuak izango dira: pertsonaren garapen integrala lortzea, alde batera utzita sexuaren araberako estereotipoak eta rolak; bereizkeria mota oro arbuiatzea, eta generoaren mugarik gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatzea.

II. KAPITULUA

HEZKUNTZA-SISTEMAKO LANBIDE-HEZIKETAREN ANTOLAMENDUA: TITULUA, PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK ETA LANBIDE-MODULUAK

3. artikulua.– Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren tituluak.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 44. artikuluan xedatutakoarekin bat, hezkuntza-sisteman, Lanbide Heziketako tituluak hauek dira: oinarrizko profesionalarena, teknikariarena eta goi-mailako teknikariarena.

2.– Tituluak baliabide dira bakoitzaren berezko kualifikazioak eta konpetentziak egiaztatzeko eta prestakuntza-maila jakin bat bermatzeko, konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak barnean izanik, lehiakortasuna, enplegagarritasuna eta gizarte-kohesioa bultzatze aldera. Oro har, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean daude jasota.

4. artikulua.– Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren irakaskuntzak antolatzea: heziketa-zikloak.

1.– Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren irakaskuntzetan, Lanbide Heziketako ziklo hauek daude: oinarrizkoa, erdi-mailakoa eta goi-mailakoa; moduluka antolatuta daude, iraupen aldakorra dute, eta barnean hartzen dituzte lanbide-arlo desberdinetara egokitutako eduki teoriko-praktikoak. Espezializazio-kurtsoak ere sartuko dira barnean; hezkuntza-sisteman Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 27. artikuluan daude jasota.

2.– Lanbide Heziketako ziklo hauek bideratuko dira titulua lortzera:

a) Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak.

b) Erdi-mailako heziketa-zikloak.

c) Goi-mailako heziketa-zikloak.

3.– Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak nahitaez eta doan eskaini beharrekoak dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzko ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuan xedatutakoaren arabera antolatuko dira.

4.– Erdi-mailako Lanbide Heziketaren irakaskuntzak nahitaezkoaren ondoko bigarren hezkuntzaren parte dira. Irakaskuntza horiei esker, beharrezko gaitasuna hartuko dute exekutatzeko eta antolatzeko lanak behar bezala egiteko. Autonomoak izan daitezke, hortaz, eta muga bakarrak izango dira lan horretarako erabiltzen diren tresnak eta teknikak.

5.– Goi-mailako Lanbide Heziketaren irakaskuntzak goi-mailako hezkuntzaren parte dira. Irakaskuntza horiei esker, beharrezko gaitasuna hartuko dute lan teknikoei lotutako jarduerak egiteko bai modu autonomoan, bai maila handiagoko erantzukizunak partekatuta.

6.– Heziketa-zikloak iraupen aldakorreko lanbide-moduluetan antolatuko dira.

7.– Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetako irakaskuntzek barnean hartuko dituzte, heziketa-ziklo bakoitzerako, bera osatzen duten helburu orokorrak eta lanbide-moduluak.

5. artikulua.– Lanbide-moduluak.

1.– Lanbide-moduluetan jakintza teoriko-praktikoko arloak egongo dira, lortu nahi diren konpetentzia profesionalen –konpetentzia-ataletan definitutakoak barne–, sozialen eta pertsonalen arabera.

2.– Nolakoak diren kontuan hartuta, baliteke lanbide-moduluak Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko konpetentzia-atalei lotuta egotea zein ez.

3.– Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua izango dute heziketa-ziklo guztiek. Ez du lan-izaera izango, eta ez dute modulua egin beharrik izango kasuko lanbide-ikasketei lotutako lan-esperientzia egiaztatzen dutenek, dekretu honen 27.5 artikuluan ezarri bezala.

Oro har, eta Oinarrizko Lanbide Heziketako berriazko arauetan xedatutako alderdi partikularrei erreparatuta, Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua egin ahal izateko, lehenbizi, ikastetxean

egindako lanbide-modulu guztiak gainditu beharko dira. Hala ere, titulu bakoitzaren irakaskuntzak EA Erako ezarri eta arautzen dituzten dekretuek beste epe batzuk ezarri ahal izango dituzte, hauek kontuan hartuta: eskaintza mota, heziketa-zikloaren berezko ezaugarriak edo enpresetan prestakuntza-lanposturik dagoen. Horrelakoetan, zehaztu beharko da zer lanbide-modulu gainditu behar den Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua egiteko.

4.– Goi-mailako heziketa-ziklo guztiek izango dute proiektua egiteko lanbide-modulua.

a) Modulu hori heziketa-zikloaren azken aldian egingo da, eta Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua egin ondoren ebaluatuko da, aukera emateko enpresan egindako praktikaldian eskuratutako kompetentziak modulu horretan sartzeko.

b) Banako eta taldeko tutoretzapean antolatuko da, eta heziketa-zikloan irakasten duten irakasleek esku egongo da irakaskuntza-atribuzioa.

c) Goi-mailako heziketa-ziklo bakoitzaren curriculumean, hezkuntza-eskumena duen sailak definituko ditu modulu honetako helburuak, metodologiak eta ebaluazio-irizpideak.

5.– Titulu bakoitzaren curriculumak ezartzen duen dekretuak zehaztuko du nola sartuko den bertan atzerriko hizkuntza.

III. KAPITULUA

LANBIDE-HEZIKETAREN ESKAINTZA

6. artikulua.– Lanbide-Heziketaren eskaintza.

Lanbide Heziketa tituluak, Dekretu honek arautzen dituen eskaintza ezberdinen bidez, edo zuzenean lortzeko antolatzen diren probak gaindituz, lor daitezke.

Artikulua 7.– Erregimen presentzian osatutako heziketa-zikloen eskaintza.

1.– Ikastetxeek, oro har, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik eta Batxilergotik datozen ikasleei zuzenduta batik bat, osorik baimenduta dituzten erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak eskainiko dituzte; eta ikasleek dekretu honen 29. artikuluan adierazitakoaren arabera egin beharko dute matrikula.

2.– Arau honen ondorioetarako, erregimen presentzian osatutako hezkuntza-zikloen eskaintza da baldin eta zikloa osatzen duten modulu guztiak goizeko, arratsaldeko edo bietako eta gaueko erregimen presentzial arruntean irakasten badira.

3.– Gaueko ordutegia duen modalitatean, hiru kurtsoan antolatuko dira irakatsi beharreko moduluak, 2.000 orduko heziketa-zikloak badira. Talde espezifiko batzuen kualifikazio- eta birkualifikazio-premiei erantzun bat emateko xedez, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak baimen dezake hiru kurtsoko eskaintza hori egunez ere izatea.

4.– Euren autonomia pedagogikoaren esparruan eta curriculum-proiektuan adierazita dituzten aurreikuspenekin bat, ikastetxeek ikaskuntza-metodologia berriak sustatuko dituzte, zeharkako kompetentzia berriak eta kompetentzia pertsonalak indartze aldera, titulu bakoitzaren kompetentzia tekniko espezifikoek gain. Metodologia berri horiek ezarri gero, aldaketak ezin du luzatu % 15 baino gehiago lanbide-moduluetarako adierazitako iraupena, Euskal Autonomia Erkidegoan curriculum bakoitza ezartzen duen arauan adierazitako iraupenari begira. Kasu guztietan errespetatu beharko dira: kurtsoen araberrako modulu-banaketa; errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitu zaizkion gutxienezko ordu-iraupenak, eta heziketa-zikloaren guztirako iraupena.

5.– Hezkuntza-eskumena duen sailak planifikatu ahal izango du, bere ikastetxeetan, uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 27. artikuluan aurreikusitako espezializazio-kurtsoak ematea, edo ikastetxe pribatuei edo beste administrazio publiko batzuen mendeko ikastetxeei horretarako baimena eman, baldin eta ikastetxeek betetzen badituzte kurtso horiek arautzen dituen arauan eskatutako betekizun espezifikoak, eta kurtso horietarako sarbidea duen Lanbide Heziketako tituluaren bat ematen badute.

8. artikulua.– Prestakuntza-zikloen eskaintza partziala.

Baimena duten zentroek prestakuntza-zikloen eskaintza partziala egin ahal izango dute. Kasu horretan ikasleak lanbide-moduluka matrikulatu ahal izango dira, 29. artikuluan ezarritakoa betez. Baina eskaintza hau helduentzako baino ez da eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak arautuko du.

9. artikulua.– Urrutiko prestakuntzaren eskaintza.

Urrutiko prestakuntzaren irakaskuntzarako (modalitate guztiak kontuan hartuta) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak ezarriko ditu, agindu baten bidez, prestakuntzaren eskaintza, sarbidea, matrikula, ebaluazioa eta eskaintza honetarako baimena duten zentroak. Izan ere, prestakuntza burutzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu sailak.

10. artikulua.– Teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probak.

1.– Hezkuntza-eskumena duen saileko titularrak arautuko ditu deialdia eta prozedura, teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probetarako –Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 69.4 artikulua–. Probetarako deialdia urtean behin egingo da, gutxienez. Deialdian honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste: zer ikastetxe publiko izendatu den proba horietarako, zer heziketa-ziklotarako egingo diren probak, zer epe dagoen matrikulatzeko, eta zer egunetan egingo diren probak. Lanbide-moduluen arabera egingo da ebaluazioa, eta proben edukiak indarreko heziketa-zikloetako curriculumei egokituko zaizkie.

2.– Ikasle bera ezin izango da egon matrikulatuta ikasturte berean lanbide-modulu berean autonomia-erkidego batean baino gehiagotan. Ezin izango da egon matrikulatuta urrutiko modalitatean eta presentzian aldi berean lanbide-modulu berean.

3.– Probetara aurkezteko, hau behar da:

a) Hemezortzi urte izatea teknikarien tituluertarako, eta hogeituz urte izatea goi-mailako teknikarien tituluertarako, edo hemeretzi urte izatea, teknikariaren titulua izanez gero.

b) Kasuan kasuko irakaskuntzetan sartzeko eskakizun akademikoak izatea.

c) Dekretu honen 11. eta 11 bis artikuluetan adierazitako eskaintzaz baliatu direnek proba hauek egin ahal izango dituzte gaintzeteke dituzten lanbide-moduluak gaintzeteke, nahiz eta titulazio akademikorik ez izan. Nolanahi ere, titulua eskatzeko, eskakizun akademikoen jabe izan beharko dute.

4.– Hezkuntza-eskumena duen saileko titularrak begiratuko du behar diren neurriak har daitezkeen proba hauetara aurkezten diren pertsona desgaituen aukera-berdintasuna, bereizkeriarik eza eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

11. artikulua.– Bestelako prestakuntza-programa batzuen eskaintza.

1.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antolatu ahal izango ditu hezkuntza-eskumena duen sailaren mendeko ikastetxe publikoetan, edo ikastetxe pribatuei edo beste administrazio publiko

batzuen mendeko ikastetxeei horretarako baimena eman, honako helburu hauek dituzten prestakuntza-programak: programa hasten den urtean 17 urte beteta izan edo 17tik gora duten eta hezkuntza-sistema behar baino lehen utzi duten pertsonak prestatzea, lanbide-kualifikaziorik ez badute edo lanbide-jarduera jakin batean sartzeko behar duten lanbide-kualifikazioa ez badute; enplegarritasuna areagotzea, eta Lanbide Heziketako tituluren bat lortzea. Prestakuntza-programa horiek egokituta egongo dira produkzio-sektorearen eta ingurunearen beharretara.

2.– Programa horien konfigurazioan Lanbide Heziketako tituluen lanbide-modulu batzuk egongo dira, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalako kompetentzia-atalei lotuta, eta katalogo horretan aipatzen ez den bestelako prestakuntza osagarriren bat ere egon daiteke, xede-taldearen beharretara egokitzeko. Prestakuntza osagarri hori moduluka egituratuko da, eta haren helburuak ikaskuntzaren emaitzetan, ebaluazio-irizpideetan eta edukietan definituko dira. Programa horien iraupena aldakorra izango da, xede-taldearen beharren arabera eta programetan sartutako lanbide-moduluen arabera.

3.– Erreferentziako lanbide-heziketako tituluak irakasteko behar bezala baimendutako ikastetxe pribatuetan edo ikastetxe publikoetan emango dira programa horiek.

4.– Enpresako jarduerarekin txandakatutako ikas-ekinezko erregimenean ere egin daitezke programa horiek, hezkuntza-sisteman Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 31. artikuluan xedatu bezala. Ikas-ekinerako, enpresan prestatzeko bekaren bat badago, bera garatzeko, aplikagarria izango da 83/2015 Dekretuan xedatutakoa, haei buruzko alderdietan: baimena, akordioen formalizazioa, ikasleen parte-hartzearen kudeaketa eta ebaluazioa, enpresa parte-hartzaileen eskakizunak, aseguruak eta euren finantzaketa (83/2015 Dekretua, ekainaren 2koa, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena).

5.– Modulu guztiek izango dute irakasleren bat esleituta, eta horrek lanbide-moduluetarako ezarritako irakaskuntza-atribuzioa izango du.

6.– Ebaluazio-aktetan jasoko da lanbide-modulu guztien ebaluazioa; Lanbide Heziketako ikastetxeko idazkariaren zaintzapean geratuko dira akta horiek, hezkuntza-eskumena duen sailaren mendeko ikastetxeak badira. Sail horren mendekoak ez badira, ikastetxeek akta horien kopia bidali beharko dute ikastetxe publikoetara, bakoitza zein ikastetxe publikotara dagoen atxikita kontuan hartuta. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ziurtatuko du programak gainditu egin direla, ikastetxeek proposatuta.

7.– Gainditzen diren lanbide-moduluak metagarriak izango dira Lanbide Heziketako tituluak lortzeko.

11 bis artikulua.– Heziketa-zikloen eskaintza modularra.

1.– Lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona helduen bizialdi osoko ikaskuntza, gizarte-integrazioa eta barne-hartzea errazteko xedez, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eskaini ahal izango ditu tituluen barneko eta Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalako kompetentzia-atalei lotutako lanbide-moduluak, hezkuntza-eskumena duen sailaren mendeko ikastetxe publikoetan, edo ikastetxe pribatuei edo beste administrazio publiko batzuen mendeko ikastetxeei horretarako baimena eman, erregimen presentzian zein urrutikoan, lan-esperientzia duten pertsonentzat, heziketa-zikloetan sartzeko ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten arren.

2.– Halaber, bizialdi osoko ikaskuntza sustatzeko xede berberaz, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eskaini edo baimendu ahal izango ditu, lehen aipatutako ikastetxeetan, iraupen laburragoko prestakuntza-kredituak dituzten lanbide-moduluak. Horretarako, 90 ordu edo gehiago

irautean duten lanbide-moduluak emateko, iraupen laburragoko prestakuntza-kreditu metagarrietan egituratu daitezke, baina ez dira 30 ordutik beherakoak izango. Prestakuntza-kreditu horietariko bakoitzean, jaso egingo dira ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak, kasuko moduluarenak berarenak; oro har, lan-jarduerei lotutakoak izango dira, izaeragatik hala dagokionean. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak garatu eta onartuko du lanbide-modulu bakoitzaren prestakuntza-kredituen egituraketa.

3.– Behar bezala identifikatutako taldeei eskaini ahal izango zaie prestakuntza mota hau. Kasu horretan, eta eskaintza hauek baliatzeko onarpen-prozesuetan, eskaera eskainitako plaza kopurua baino handiagoa bada, onarpen-irizpideak ezarriko dira, eta kontuan hartuko da nolakoa den xede-taldea eta nolako prestakuntza-premia bereziak dituzten.

4.– Prestakuntza-kreditu hauek balioa dute Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, ebaluatu eta kalifikatu egingo dira lanbide-moduluetarako ezarritakoaren antzera, eta ebaluazio-akta espezifiketan dokumentatuko da. Lanbide-moduluren bati dagozkion prestakuntza-kreditu horiek guztiak gaindituz gero, haren beraren ziurtapena lortuko da. Horrela egiaztatutako lanbide-moduluari zer puntuazio dagokion kalkulatzeko, kreditu desberdinetan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.

5.– Prestakuntza modular hau metagarria izango da Lanbide Heziketako titulua lortzeko; horretarako, behar diren sarbide-betekizunak egiaztatu beharko dira.

6.– Lanbide-modulu hauen ebaluazio-datuak aplikagailu informatiko batean jasoko dira, hezkuntza-eskumena duen sailak adierazitako prozedurei jarraikiz.

7.– Aplikazio horietan ziurtapen digitala ezartzen ez den bitartean, behar bezala sinatutako ebaluazio-aktak Lanbide Heziketako ikastetxeko idazkariaren zaintzapean geratuko dira. Horretaz gain, hezkuntza-eskumena duen sailaren mendekoa ez bada, ikastetxeak akta horien kopia bidali beharko du ikastetxe publikora, bakoitza zein ikastetxe publikotara dagoen atxikita kontuan hartuta.

12. artikulua.– Lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez esku-ratutako konpetentzia profesionalak ebaluatzea eta onartzea.

Lan-esperientzia eta ikaskuntza ez-formalak kapitalizatzeko xedez, pertsona helduek tituluak ere eskura ditzakete hemen xedatutako prozeduraren bidez: Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Legearen 8. artikulua, azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuan garatuta –zeinaren bidez ezartzen baitira lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako konpetentzia laboralak ebaluatzeko eta egiaztatzeko antolamendua eta prozedura Euskal Autonomia Erkidegoan.

12 bis artikulua.– Lanbide Heziketako heziketa-zikloen curriculuma egokitzeko neurriak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloen curriculuma ezartzeko, kontuan hartuko dira ezaugarri sozioekonomikoak eta produkzio-sektoreen berariazko eskakizunak.

2.– Pertsonen prestakuntza produkzio-sistemaren eta enpleguaren benetako beharretara egokitzeko, behar den espezializazioa emateko, eta bizialdi osoko ikaskuntza erraztu eta hobetzeko xedez, egokitzapen-neurri hauek ezarri dira:

a) Heziketa-zikloen curriculuma egokitzea ingurune sozioproduktibora eta hezkuntza-ingurunera. Nolanahi ere, errespetatu egingo da Lanbide Heziketako tituluetan ezarritako oinarrizko curriculumak,

eta, irakaskuntza desberdinetako curriculumak ezartzen denean, aukera izango da lanpostuan aplikatzeko modulu espezifikoak definitzeko, hala behar duten Lanbide Heziketako zikloetan, kasuan kasuko inguruabar sozialen eta ehun ekonomiko-produktiboaren arabera. Espezializazio-modulu horien xedea da: tituluak ezarritako oinarrizko alderdien edukiak, Euskal Autonomia Erkidegoko heziketa-zikloetan zehaztutako curriculumaren barnean daudenak, hedatzea eta garatzea, produktio-sektoreek hala eskatutako tituluak espezializazio-ibilbideak egituratzeko aukerari bide emanez. Horretaz gain, ikastetxeek, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen eskaintzaren esparruan, zehaztuko dute zer espezializazio-ibilbide eskaintzen duten.

b) Ikaskuntza-ibilbide integratuak ezartzea Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ondoz ondoko mailen artean. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ikaskuntza-ibilbide integratuak ezarri ahal izango ditu Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ondoz ondoko mailen artean. Horretarako, erdi-mailako heziketa-zikloen curriculumak aldatu ahal izango da, Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloetatik etortzen diren ikasleen prestakuntza-ezaugarrietara egokitzeko. Horretaz gain, goi-mailako heziketa-zikloen curriculumak ere aldatu ahal izango da, erdi-mailako heziketa-zikloetatik etortzen diren ikasleen prestakuntza-ezaugarrietara egokitzeko. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako curriculumean lanbide-moduluei esleitutako ordu kopurua egokitu ahal izango da, modulu horien moduluen kurtsoak sekuentziari eutsita, eta Lanbide Heziketako tituluak ezarritako oinarrizko curriculumak eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxienezko ordu-kopurua errespetatuta.

Ezaugarri bereziak dituztenek, ikaskuntza-ibilbideen barruko heziketa-zikloen eskaintza bereziko sarbidea izango dute ibilbide horietarako zehaztutako lanbide-arloko edo -arloetako heziketa-zikloen beherako mailako Lanbide Heziketako titulua duten ikasleek. Plaza-eskaera eskaintza baino handiagoa bada, lehentasuna izango dute ibilbiderako sarbidea ematen duen heziketa-zikloan espediente akademiko onenak dituzten ikasleek.

12 ter artikulua.– Lanbide-espezializazioko programak.

1.– Hezkuntza-eskumena duen sailak, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak proposatuta, lanbide-espezializazioko programak ezarri ahal izango ditu pertsonen enplegarritasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetze aldera.

2.– Programa hauek Lanbide Heziketa Dualaren esparruan eskainiko da lehendabizi, ikas-ekinezko erregimenean, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen bat ikasten ari diren pertsonentzat, kasuko tituluak eskatzen duen prestakuntza osagarri gisa. Kasu horretan, Lanbide Heziketa Dualaren ikas-ekinezko programek bi kurtso baino gehiago iraun beharko dute, eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak baimendu beharko ditu.

3.– Halaber, salbuespen gisa, eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak aldeztu aurretik baimenduta, lanbide-espezializazioko programa horiek eskaini ahal izango zaizkie hauei: Lanbide Heziketako tituludunei eta programa ematen laguntzen duten enpresek horretarako proposatzen dituzten profesionalak, baldin eta ezarritako esperientzia- eta prestakuntza-eskakizunak betetzen badituzte. Hala bada, lehendabizi ikas-ekinekoak egingo dira, enpresako prestakuntza-egonaldia-ekin txandakatuta.

4.– Aurreko zenbakian adierazitako kasuan, ikas-ekinerako, enpresan prestatzeko bekaren bat badago, bera garatzeko, aplikagarria izango da 83/2015 Dekretuan xedatutakoa, hauei buruzko alderdietan: baimena, akordioaren formalizazioa, ikasleen ebaluazioaren kudeaketa, enpresa parte-hartzaileen eskakizunak, aseguruak eta euren finantzaketa (83/2015 Dekretua, ekainaren 2koa, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena).

5.– Aipatutako programa horiek gutxieneko atal hauek izango dituzte:

a) Identifikazioa:

i) Izena.

ii) Kodea.

iii) Zenbat irauten duten guztira, enpresako egonaldia barnean hartuta, egonaldirik izanez gero.

b) Lanbide-profila, kompetentzia orokorren bidez identifikatuta, egin beharreko jarduna deskribatuta, eta kompetentzia profesionalen zerrenda eginda: prestakuntza-ekintzari loturiko kompetentzia teknikoak, pertsonalak eta sozialak, eta, kasuan kasu, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalako kompetentzia-atalen zerrendarekin batera, halakorik badago.

c) Baterako prestakuntza (ikaskuntza-esparrutan antolatutako egitura modularra izan dezake, eta lortu beharreko ikaskuntzaren emaitzen arabera definituko da), eta ordu-iraupena.

d) Lanbide Heziketako zer titulu ikasi behar izan den edo ikasten ari den kasuko espezializazio-programan sartzeko. Salbuespen gisa, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak aldeztetik horretarako baimena emanda, onartu ahal izango dira kasuko programa aprobetxatu ahal izateko kompetentzia-maila nahikoa egiaztatzen duten pertsonak.

e) Programa eskatzen duten enpresa-taldeak edo produkzio-sektoreak.

f) Espezialitate-, prestakuntza- eta esperientzia-eskakizunak, programan parte hartzen duten ikastetxeko irakasleentzat eta enpresako instruktoreentzat.

6.– Programa bakoitza emateko ardura duen Lanbide Heziketako ikastetxeak aldeztetik prestatu beharko du irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueren programazioa, programa garatzeko aurreikusitako jarduerak, hain zuzen.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-espezializazioko programei buruzko prestakuntzak ez du emango ez titulu edo ziurtagiri akademikorik, ez lanbide-ziurtagirik edo ziurtagiri partzial metagarririk, harik eta kompetentziak Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan sartzen diren arte. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak programako edukiaren eta iraupenaren ziurtagiri zehatza egingo die programan ebaluazio positiboa izan duten ikasleei. Ziurtagiriak erregistro espezifiko batean txertatuko dira, eta bertan jarriko da lanbide-profila, haren izendapena eta kompetentzia orokorra, baita ikaskuntzaren emaitzei loturiko prestakuntza ere.

IV. KAPITULUA

LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASKUNTZETARAKO SARBIDEA

13. artikulua.– LHko irakaskuntzetan sartzeko bideak hezkuntza-sisteman.

1.– Erdi-mailako heziketa-zikloetan zuzenean sartzeko, eskatu egingo da kasuko oinarrizko legerian eta haren arauzko garapenean ezarritako eskakizunak izatea.

2.– Proba bidez sartzeko aukera ere izango da, hezkuntza-eskumena duen saileko titularrak arauz ezarritakoarekin bat. Proba horietarako deialdia urtean behin egingo da, gutxienez.

3.– Hogeita bost urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko proba gaindituta dutenak salbuetsita egongo dira aurreko zenbakian adierazitako proba egitetik.

Artikuluia 14.– Proba bidezko sarbidea, Erdi-mailako Lanbide Heziketara.

1.– Erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probaren bidez, egiaztatu beharko da ikasleek ezagutza eta trebetasun nahikoa dutela kasuko irakaskuntzak aprobetxatzeko, aplikagarriak diren indarreko arauetan ezarritakoaren arabera.

2.– Erdi-mailako heziketa-zikloetara bide honetatik sartzeko, gutxienez hamazazpi urte beteta eduki behar dira proba egiten den urtean.

3.– Hezkuntza-eskumena duen saileko titularrak arautuko du, indarreko arauekin bat, proba-zatiren batetik salbuetsi behar diren profesionaltasun-ziurtagiria dutenak edo kualifikazio edo lan-esperientzia zehatzen bat dutenak, baldin eta esperientzia hori egin nahi diren ikasketekiko lotura duen eremu profesionalekoa bada eta lanaldi osoan emandako urte baten baliokidea bada.

15. artikulua.– Proba bidezko sarbidea, Goi-mailako Lanbide Heziketara.

1.– Goi-mailako Lanbide Heziketara sartzeko probaren bidez, egiaztatu beharko da ikasleek nahiko heldutasuna dutela, Batxilergoko helburuei begira, eta behar diren ezagutza espezifikoak dituztela egin nahi duten ziklorako, aplikagarriak diren indarreko arauetan ezarritakoaren arabera.

2.– Goi-mailako heziketa-zikloetara bide honetatik sartzeko, gutxienez hemeretzi urte beteta eduki behar dira proba egiten den urtean.

3.– Proba horrek zati komuna eta zati espezifikoa izango ditu. Zati komunaren helburua izango da: hautagaiek Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketak egiteko duten heldutasuna eta egokitasuna baloratzea, baita arrazoitzeko ahalmena eta idatzizko adierazpena ere. Batxilergoko gai instrumentalenei buruzkoa izango da. Zati espezifikoaren helburua izango da: kasuko eremu profesionaleko oinarrizko gaitasunak baloratzea. Batxilergoko gaietako oinarrizko ezagutzei buruzkoa izango da.

4.– Hezkuntza-eskumena duen saileko titularrak arautuko du, indarreko arauekin bat, proba-zatiren batetik salbuetsi behar diren egin nahi den heziketa-zikloari lotutako profesionaltasun-ziurtagiriren bat dutenak edo kualifikazio edo lan-esperientzia zehatzen bat dutenak, baldin eta esperientzia hori egin nahi diren ikasketekiko lotura duen eremu profesionalekoa bada eta lanaldi osoan emandako urte baten baliokidea bada.

16. artikulua.– Sarbide-probak kalifikatzea.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-proba zenbaki bidez kalifikatuko da, proba-zati bakoitzean zero eta hamar arteko puntuazioa emanik, bi hamartarrekin. Probaren azken nota kalkulatzeko, gutxienez lau puntu lortu behar dira proba-zati bakoitzean, eta, hala bada, puntuazio bien batez besteko aritmetikoa egingo da, bi hamartarrekin adierazita; bost puntukoa edo gehiagokoa izango da kalifikazio positiboa.

17. artikulua.– Sarbide-proben baliozkotasuna.

1.– Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probak Estatuaren lurralde osoan izango dira baliozkoak.

2.– Goi-mailako heziketa-zikloetan, horietariko bakoitzerako proba bidezko sarbidea proba-zati espezifikoaren arabera izango da.

3.– Ikasturte berean ezin izango dira sarbide-probak autonomia-erkidego batean baino gehiagotan.

17 bis artikulua.– Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzeko probetan onartzeko irizpideak.

1.– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak proba horietarako bestelako onarpen-prozeduraren bat aplikatu ahal izango du, Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probetarako deialdia egiten duen ebazpenaren bidez, eskaria eskaintza baino handiagoa bada.

2.– Onarpen-prozedura horietan, hemen adierazten den lehentasun-hurrenkeraren arabera, balorazio-irizpide hauek erabiliko dira:

a) Sarbide-probaren zatietako bat gaindituta izatea Euskal Autonomia Erkidegoan, eta nota hori gordetzen den indarraldiaren barruan egotea.

b) Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

c) Kasuko deialdian berdinketa hausteko adierazitako irizpidea.

V. KAPITULUA

CURRICULUMAK

18. artikulua.– Curriculumaren garapena.

1.– Euskadiko Autonomia Elkartearen ezartzen diren prestakuntza-zikloetako curriculumetan gutxienez hurrengo alderdiak jasoko dira.

a) Lanbide-profila, gaitasun orokorraren eta lanbide-prestakuntzaren arabera.

b) Prestakuntza-zikloa osatzen duten helburuak eta lanbide-moduluak (tituluaren irakaspenak).

c) Lanbide-moduluak ebaluatzeko helburu eta irizpide orokorrak.

d) Lanbide-moduluen edukiak.

e) Lanbide-modulu bakoitzaren iraupena.

f) Lanbide-moduluen denborazko banaketa, tituluko irakaspenen eskaintza duten ikastaroetan.

g) Titulu bakoitzari lotutako prestakuntza emateko gutxieneko baliabide didaktiko eta teknologikoen hornikuntza.

h) Batxilergoko modalitateetarako sarrerak eta, hala dagokionean, unibertsitateko ikasketetarako sarrera.

Horien guztien artean, 1.d) atalean aipatzen direnak zentroek garatu ahal izango dituzte dagoen testuingurura hobeto egokitu daitezten. Gainerako ataletan aipatzen direnak, aldiz, artikuluhonetan ezarri bezala eta ezarritako kopuruan aplikatuko dira.

2.– Curriculumak garatzean kontuan hartu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko garapen ekonomiko eta sozialaren beharrezkoak eta giza baliabideen egitura, Euskal Herriko ingurura eta lanaren egitura ekonomikora behar bezala egokitu daitezten.

19. artikulua.– Zentroek egindako curriculumaren garapena.

1.– Hezkuntza-zentroek irakaskuntza profesionalen curriculumak garatu eta Urteko Programazio Orokorrean islatuko dute, bere gizarte eta ekoizpen ingurunekeo ekonomi, gizarte eta giza baliabideen garapen beharrezkoak kontuan hartuta betiere.

2.– Prestakuntza-ziklo bat baino gehiago ematen duten zentroetako Urteko Programazio Orokorra irizpide homogeneoekin eratuko da, baina lanbide bakoitzaren irakaspenetarako ezartzea komeni diren zehaztapenak errespetatuz.

20. artikulua.– Irakaskuntza-taldea.

1.– Prestakuntza-ziklo bateko irakasle-taldeak osatzen du zikloaren irakaskuntza-taldea.

Orokorrean, lanbide-modulu bakoitza irakasle batek emango du; baina gerta daiteke moduluren batean irakasle adituren baten laguntza ere izatea, eskaintza partzialen barruan, edota, bidezkoa bada, Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionaletan.

2.– Prestakuntza-ziklo bateko irakasle kopurua, koordinazioa eta kohesioa errazteko, ahalik eta txikiena izango da; gainera, ikasle taldeak ziklo osoan zehar irakasle berberak izatea eta zikloak irauten duen bitartean koordinatuta egotea bultzatuko da.

Halaber, lanbide-familia bereko prestakuntza-zikloak ematen dituzten irakasleen lana koordinatua izango da, baita lanbide-familia bateko edo batzuetako prestakuntza-zikloekiko zeharkakoak diren lanbide-moduluetako irakasleen lana ere.

3.– Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa ematen duten zentro guztiek izango dute lantokietan egindako praktiken koordinatzaile bat. Koordinatzaile honen eginkizun nagusiak honakoak izango dira: Hezkuntza-zentroaren eta lantokiaren arteko harremanak ezartzen eta garatzen laguntzea, eta zentroko Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionalen tutoreen ekintzak koordinatzea.

Bestalde, Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionalen tutoreak garatu eta koordinatuko ditu moduluko irakaskuntza-ekintzak prestatzailearekin batera; azken hau, hain zuzen, lantokiak bertan ematen den prestakuntzaren arduradun gisa eskaintzen duen aditua da.

21. artikulua.– Programazioa.

1.– Zentroko sail bakoitzak programazio bakarra izango du lanbide-modulu bakoitzeko, eta programazio hori modulua emango duten irakasleen espezialitateko irakasleek garatuko dute elkargo moduan jokotuta. Talde guztietan aplikatuko da programazioa, modulua ematen duten irakasle guztiek aplikatuko baitute. Prestakuntza-zikloaren irakasle taldeko irakasle bakoitzak programazio orokorra egokitu eta testuinguruan sartu beharko du, dagokion taldearen inguruabarrak eta ezau-garriak kontuan hartuz.

Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionalaren kasua berezia denez, modulu hauetako arduradunak erabakiko du, lantokiko prestatzailearekin batera, zein izango diren ikaslea lantokian dagoen bitartean garatuko diren jarduerak eta horien gauzatze-maila zehazteko irizpideak.

Aurreko paragrafoetan aipatzen den programazioan hurrengo alderdiak behar bezala zehaztuta agertu beharko dira:

- a) Lanbide-modulua osatzen duten eta garatzen lagunduko duten unitate didaktikoen zerrenda.
- b) Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta horietako bakoitza garatzeko ezarri den denbora.
- c) Unitate didaktiko bakoitzean honakoak zehaztuko dira gainera:
 - 1) Lortu nahi diren helburuak.
 - 2) Garatuko diren edukiak.

3) Irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak eta ebaluazio jarduerak, zertarako egingo diren eta nola egingo diren justifikatuz; eta jarduera horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak.

d) Errefortzu- edo errekupeazio-jarduerak.

e) Aurrerapena egiaztatzeko eta ikasleei nota jartzeko aplikatuko diren ebaluazio irizpideak.

2.– Hezitzaile-taldeak egokituko ditu programazioak egokitu zaion taldeko ikasleek dituzten hezkuntza-premien arabera. Ikasleren batek ez badu aurrera egiten, oro har, programaturako helburuei erantzuten, irakasleek beraiek hartuko dituzte behar diren hezkuntza-indargarriak emateko neurriak eta, behar izanez gero, curriculum-a egokituko dute.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, eskolatze-aldia malgutasunez hartu behar bada, irakasleek erantzuna emango dute arauak kasu horietarako adierazitakoaren arabera; baina, ahaztu barik curriculum-egokitzapen horrek inoiz ezin izango duela desagerrarazi tituluaren gaitasuna izateko konpetentzia orokorra lortzeko oinarrizko konpetentzia profesionalei loturiko helbururik.

3.– Prestakuntza-ziklo bateko ikasleen talde bakoitzak irakasle tutore bat izango du, eta honek koordinatuko ditu ikasle bakoitzarentzat irakasle guztiek garatuko dituzten jarraipen eta orientazio akademiko, pertsonal eta profesionalen prozesuak. Lanbide-moduluaren eskaintza partzialean, lanbide-modulu bakoitza emango duen irakasleak hartuko du horri dagokion tutoretza.

22. artikulua.– Metodologia.

Berariazko Lanbide-heziketaren metodologia didaktikoak eduki zientifikoak, teknologikoak eta antolaketakoak sartzearen alde egingo du. Halaber, ikasleek bere kabuz ikastea eta talde-lanean aritzea bultzatuko du; berdintasunezko harremanak sustatuko ditu; eta itxaropenak betetzen eta ikasleen interesak betetzen lagunduko du, edozein bereizkeria mota baztertuz.

VI. KAPITULUA

EBALUAZIOA, KALIFIKAZIOA, BALIOZKOTZEA ETA SALBUESPENAK

23. artikulua.– Subjektua eta helburua.

1.– Irakasleek banaka eta taldeka ebaluatuko dituzte ikasleek ikasitakoa eta ematen zaien irakaskuntza. Hain zuzen, irakaskuntza baliozkotzean, besteak beste, curriculumaren programazioa, antolaketa eta zehaztapena hartuko dituzte kontuan, ekoizpen inguruaren ezaugarrietara eta ikasleen beharrezanetara egokitzeko. Hori gorabehera, Hezkuntzako Ikuskaritzak dagozkion eginkizunak beteko ditu.

2.– Ikaslearen ikaskuntza etengabe ebaluatuko da; lanbide-moduluka egingo da eta, horretarako, irakasleek prestakuntza-ziklo bakoitzean dauden lanbide-modulu guztiak hartuko dituzte aintzat. Prestakuntza-zikloa emango duten irakasleek egindako ebaluazioa tutoreak koordinatuko du.

24. artikulua.– Ikasleak ebaluatzeko oinarrizko irizpideak.

1.– Irakasleek ebaluazioa egiteko aplikatuko dituzten irizpideen eta prozeduren oinarriak hauek izango dira: lanbide-modulu bakoitzeko ebaluaziorako helburuak eta irizpideak; prestakuntza-zikloaren helburu orokorrak, tituluari dagokion gaitasun profesionala jasotzen dutelako; eta ikasleek dekretu honetako 2. artikuluan ezartzen diren gainerako helburuekiko lortutako heldutasuna.

2.– Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionala ebaluatzeko, modulua ematen duen tutoreak edo irakasleak lehentasuna emango dio ikaslea lantokian egon den bitartean izan duen prestatzaileak edo prestatzaileek egindako balorazioari.

3.– Ebaluatzeko prozedurak ikasle ezinduen beharrian metodologikoetara egokituko dira; gainera, ikasle hauek ebaluaziorako probetan parte hartzeko aukera izan dezaten bermatuko da.

4.– Prestakuntza-ziklo bat gainditzeko, zikloak dituen modulu guztiak gainditu behar izango dira.

25. artikulua.– Prozesuaren ondoriozko ebaluazio-saioak eta dokumentazioa.

1.– Ebaluazio-saio esaten zaie hezitzaile-taldearen bilerei, tutorea buruan eta berak antolatuta; saio horien helburua izaten da: modulu desberdinetako irakasleek emandako informazioak kontrastatzea eta elkarrekin baloratzea zer-nolako aurrerapena duten ikasleek hezkuntza-zikloaren helburu orokorrak eta zikloa osatzen duten moduluen helburuak lortzeko bidean.

2.– Lanbide Heziketako irakaskuntzak ebaluatzeko prozesuaren dokumentuak honako hauek izango dira: ikaslearen ikasketa-espeditentea, ebaluazio-aktak eta banakako ebaluazio-txostenak. Ebaluazio-txostenak eta ikasketa-ziurtagiriak izango dira ikasleen mugikortasuna bermatzen duten oinarritzko dokumentuak.

3.– Heziketa-ziklo hauen ebaluazio-datuak aplikagailu informatiko batean jasoko dira, hezkuntza-eskumena duen sailak adierazitako prozedurei jarraikiz.

4.– Aplikazio horietan ziurtapen digitala ezartzen ez den bitartean, behar bezala sinatutako ebaluazio-aktak Lanbide Heziketako ikastetxeko idazkariaren zaintzapean geratuko dira. Horretaz gain, hezkuntza-eskumena duen sailaren mendekoa ez bada, ikastetxeak akta horien kopia bidali beharko du ikastetxe publikora, bakoitza zein ikastetxe publikotara dagoen atxikita kontuan hartuta.

5.– Ikasketa-ziurtagiriak inprimaki ofizial normalizatuetan egingo dira, interesdunak aldez aurretik eskatuta. Ziurtagiri horietan, hauek egon behar dute adierazita: ikasleek lortutako kalifikazioak, positiboak eta negatiboak, bakoitzaren deialdi zehatza, ohikoa edo ohiz kanpokoak, eta ikasturtea, ziurtagiria ematen den egunera arte. Positibotzat hartuko dira bosteko edo hortik gorako puntuazioak.

6.– Heziketa-ziklo bakoitzaren irakaskuntza guztiak gainditzen ez dituztenek gainditutako lanbide-moduluen ikasketa-ziurtagiria jasoko dute; ondorio akademikoez gain, Kualifikazio eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionalari loturik eskuratutako konpetentzia profesionalen egiaztapen partzial metagarriaren ondorioetarako balioko du ziurtagiri horrek.

7.– Hezkuntza-eskumena duen saileko titularrak arautuko du hezkuntza-sisteman ezarritako Lanbide Heziketa ebaluatzeko prozesua, besteak beste:

a) Ebaluazio-prozesutik eratorritako dokumentazio ofizialaren forma eta zaintza.

b) Ebaluazio-saioak: zenbat, nolakoak edo helburuak.

c) Salbuespenez, ohiz kanpoko deialdiez baliatzeko, pertsona horiek agortu behar izan dituzte oinarritzko arauan ezarritako lau deialdiak arrazoi hauengatik: amatasuna, mendeko pertsonak zaintzea, gaixotasuna edo desgaitasuna, edo ikasketak ohi legez egitea eragozten edo baldintzatzten duen beste edozein arrazoi.

26. artikulua.– Prestakuntza-zikloaren eta lanbide-moduluen kalifikazioa.

1.– Lanbide-moduluaren kalifikazioa batetik hamarrera bitartekoa izango da, eta ez du hamar-tarik izango. Bost puntuko edo hortik gorako kalifikazioak positiboak dira. Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionalari gai edo ez-gai kalifikazioa emango zaio.

2.– Prestakuntza-ziklo osoak bere kalifikazioa izango du, baldin eta horren lanbide-modulu guztiak gainditu badira; kalifikazio hori, lanbide-moduluetan lortutako kalifikazioen batez besteko nota izango da eta bi hamartar izango ditu.

27. artikulua.– Lanbide-moduluen baliozkotzeak eta salbuespenak.

1.– Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan jasotako kompetentzia-atalen bat ofizialki egiaztatuta dutenek baliozkotuta izango dituzte kasuko lanbide-moduluak, espezializazioko kurtso edo titulu bakoitzari buruzko arauan ezarritakoaren arabera.

2.– Erdi-mailako heziketa-zikloetako lanbide-moduluak Batxilergoko ikasgaiekin baliozkotu ahal izango dira, ziklo bakoitzari buruzko arauak adierazten duenaren arabera.

3.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritako Lanbide Heziketako edozein titulutan jasotako Laneko prestakuntza eta orientabideko lanbide-modulua baliozkotu ahal izango da, baldin eta Hezkuntza-sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako Laneko prestakuntza eta orientabideko lanbide-modulua gainditu izana eta prebentzio-jardueraren oinarrizko mailako funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntza-maila egiaztatzen badira. Egiaztatze horiek indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera eman beharko dira.

4.– Laneko prestakuntza eta orientabideko eta Enpresa eta ekimen sortzaileko lanbide-moduluak Lanbide Heziketa arautzen duten errege-dekretuen barnean daude; Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren erregulazioaren arabera onartu dira, eta baliozkotu egingo dira goi- edo erdi-mailako zer heziketa-ziklotakoak diren kontuan hartu gabe.

5.– Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua osorik edo zati batean salbuestea erabaki ahal izango da, lan-esperientziarekin bat etortzeagatik, baldin eta lanaldi osoko urtebeteko esperientzia egiaztatzen bada kasuko lanbide-ikasketekin lotuta.

Lan-esperientziaren bidez hartutako lanbide-kompetentziak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko da aurreko idatzi-zatian adierazitako lan-esperientzia.

6.– Hezkuntza-kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren arabera onartzen diren Oinarrizko Lanbide Heziketako lanbide-moduluak baliozkotu egingo dira, kode desberdinak eta izena berdinak izan arren, zer heziketa-ziklotakoak diren kontuan hartu gabe.

7.– Ingeles teknikoko lanbide-modulua, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumetan propio izanik, erdi-mailako heziketa-zikloetan baliozkotu ahal izango da egiaztatzen bada Ingeles teknikoko lanbide-modulua goi-mailako heziketa-zikloren batean gainditu izana, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumetan propio izanik. Halaber, Ingeles teknikoko lanbide-modulua baliozkotzea onartuko zaie ingelesean B1 maila edo goragoko bat egiaztatzen duten pertsoneri, erdi-mailako heziketa-zikloetan, edo B2 maila edo goragoko bat, goi-mailako heziketa-zikloetan. Eta Ingeles teknikoko goi-mailako eta erdi-mailako lanbide-modulua baliozkotzea onartuko zaie Ingeles Filologiako gradu-titulua edo Itzulpen gintza eta Interpretazioko gradu-titulua (ingelesean), edo haien baliokidea egiaztatzen duten pertsoneri.

8.– Ingeles teknikoko moduluan, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumetan propio izanik, salbuetsi ahal izango dira 21 urtetik gorakoak, hala eskatzen badute; baina, horretarako, egiaztatu beharko dute 3 urteko gutxienezko lan-esperientzia, eta izan behar dituzte, oro har, heziketa-zikloaren iraupenaren erdia osatzeko beste lanbide-modulu gaindituta edo kompetentzia-atalak egiaztatuta, uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak adierazitako prozeduraren bidez edo enplegurako

lanbide-heziketako sistemaren bidez. Halaber, salbuetsi egingo dira heziketa-zikloan lehendabizi matrikulatzen diren eta urte naturalean 45 urte betetzen dituzten pertsonak, eta hortik gorakoak.

9.– Baliozkotutako lanbide-moduluei 5eko kalifikazioa emango zaie, heziketa-zikloaren batez besteko nota lortzeko. Salbuetsitako lanbide-moduluak ezin izango dira zenbatu heziketa-zikloaren batez besteko nota kalkulatzeko.

10.– Kode berdinak, izendapen berdinak, amaierako gaitasun edo ikaskuntza-emaiza berdinak, eduki eta iraupen berdinak dituzten lanbide-moduluei modulu berdin iritziko zaie, edozein dela ere dagokien heziketa-zikloa. Hala izanik, gainditutako lanbide-moduluetan lortutako kalifikazioak lekualdatuko dira aipatutako modulu horiek barnean hartzen dituzten zikloetan edozeinetara.

11.– Aldez aurretik baliozkotu diren lanbide-moduluak ezin izango dira berriro baliozkotu beste lanbide-modulu batzuekin.

27 bis artikulua.– Lanbide-moduluen baliozkotze eta salbuespenei buruzko prozedura-alderdiak.

1.– Lanbide-modulurik baliozkotzeko edo salbuesteko, beharrezkoa izango da aldez aurretik matrikulatuta egotea eskabidearen xede den heziketa-zikloan.

2.– Lanbide-modulurik baliozkotu edo salbuetsi nahi duen ikasleak matrikula egin non eta ikastetxe horren zuzendariari aurkeztu behar dio lanbide-moduluak baliozkotzeko edo salbuesteko eskabidea, ikasturte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen edo, salbuespenez, matrikulatu ondorengo 10 egunetan, baldin eta matrikula lehenengo epearen amaieran egiten badu. Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua salbuesteko eskabidea egin ahal izango da kasuko azken ebaluazioa egiten den eguna baino lehenago epe nahikoa emanda bera ebazteko. Eskabidearekin batera, baliozkotze edo salbuespen horietarako behar den agiri bidezko justifikazioa emango da.

3.– Ikaslea matrikulatuta dagoen eta haren ikasketa-espeditentea daukan ikastetxearen zuzendariak berak ebatziko du dekretu honetan edo indarreko gainerako arauetan adierazitako baliozkotzeak eta salbuespenak onartzen diren ala ez, eskabidea egin eta hilabeteko epean. Interesdunari ebazpena berariaz eta legez jakinarazi gabe gehieneko epea amaituz gero, eskaera administrazio-isiltasunagatik ezetsizat hartu dela ulertu behar da.

4.– Eskatutako baliozkotzearen edo salbuespenaren gaineko ebazpena ez bada zuzendariaren eskumenekoa, indarreko arauak baliozkotzeko aukera hori berariaz jasotzen ez dutelako, ikastetxeak eskaeraren harrera egin eta egiaztatu beharko du behar bezala eta behar diren agiriekin aurkeztu dela; hala badagokio, egin beharreko zuzenketak aurkezteko 10 eguneko epea emango du, eta, ondoren, zuzenean eta berehala igorriko dio organo eskudunari, berak izapidetu eta ebatzi dezan, organoak berak ezarritakoaren arabera. Zuzendariak horren berri emango dio ikasle eskaizaleari, honek prozedura ezesteko eskubidea baliatzeko aukera izan dezan.

5.– Aurreko zenbakian adierazitako kasuan, ikasleari jakinarazi ondoren, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko organo eskudunari igorri beharko zaizkio baliozkotze- eta salbuespen-eskabideak, berak ebatzi ditzan. Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzara igorri behar dira, berak izapidetzeko, Lanbide Heziketako tituluak arautzen dituzten gutxieneko irakaskuntzetan bilduta ez dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren edukiak osatzen dituzten lanbide-moduluen baliozkotzeak edo salbuespenak, ikastetxearen eskumenekoak ez badira, indarreko arauetan berariaz jasota ez egoteagatik.

6.– Lanbide-moduluen baliozkotze- edo salbuespen-ebazpenak ikaslearen ikasketa-espeditan, ebaluazio-aktetan eta ikasketen ziurtagirian jasota geratuko dira, hurrenez hurren, honela:

- a) Baliozkotua; baliozkotu diren lanbide-moduluetan.
- b) Salbuetsia; salbuetsi diren lanbide-moduluetan.

VII. KAPITULUA

PRESTAKUNTZA-ZIKLOEN ONARPENA, MATRIKULA ETA SUSTAPENA

28. artikulua.– Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeetako onarpena.

1.– Hezkuntza-eskumena duen saileko titularrak ezarriko du, urtero, Lanbide Heziketa ikasteko onarpenetarako egutegia, ikastetxe publikoetan zein pribatu itunduetan, aplikagarria den arauetan xedatutakoarekin bat.

2.– Besteak beste, hauek ere ezarriko ditu: onarpen-datak, ikastetxeko plazen eskaera eskaintza baino handiagoa denean aplikatu beharreko irizpideak, sarbide desberdinetarako gorde behar den plazen ehunekoa, hezkuntza-sisteman Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 47. artikuluan xedatutakoarekin bat. Horretaz gain, ikasle desgaituei, goi-errendimenduko ikasleei eta behar duten beste batzuei gorde behar zaien plazen ehunekoa ere ezarriko du, aplikagarriak diren arauekin bat.

3.– 12 ter artikulua b letran adierazten diren ikaskuntza-ibilbideetariko baten parte den heziketa-zikloa amaitzen duten ikasleak lehentasunez onartuko dira proiektuan sartutako heziketa-zikloaren goi-mailan, zein bere ibilbidearen barruan. Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak izendatutako edo baimendutako ikastetxeetan matrikulatuko dira.

29. artikulua.– Prestakuntza-zikloetako matrikula.

1.– Erdi eta goi mailako prestakuntza-zikloetako matrikula ikasketa horien eskaintzaren arabera izango da.

2.– Eskaintza osoa denean, hala ere, prestakuntza-zikloko ikasturte bakoitzean egingo da matrikula. Eskaintza partziala denean, aldiz, matrikula lanbide-moduluka egingo da.

3.– Ikaslearen mugikortasunerako eskubidea bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko prestakuntza-zikloen ikasketen antolamenduak xedatzen duen beste autonomia-erkidego batzuetako lanbide-moduluren bat gainditu duten ikasleak presentziatzko erregimenean edo urrutiko erregimenean matrikulatu ahal izango direla, baldin eta ezarritako deialdi kopurua agortu ez bazaio. Kasu horretan, ikasleak, gainditu gabe dituen lanbide-moduluetan matrikula partziala egin ahal izango du.

4.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak urtean behin ezarriko ditu matrikularen datak, matrikulatzeko prozesuari buruzko inguruabarrak, deialdiari uko egiteko baldintzak eta lanbide-modulu guztietarako edo batzuetarako matrikula. Deialdiari uko egiten zaionean, ebaluazioko agirietan uko egite moduan jasoko da.

30. artikulua.– Sustapena.

1.– Ebaluatzeko azken bilera egin ostean ikasleari gainditu gabeko moduluren bat geratzen bazaio, behin bakarrik errepikatu ahal izango ditu presentziatzko erregimenean lanbide-modulu bererako programatu diren jarduerak.

2.– Ikaslea gehienez lau aldiz aurkeztu ahal izango da lanbide-modulu beraren azken ebaluaziora eta kalifikaziora; alabaina Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionalaren kasuan bi aldiz bakarrik aurkeztu ahal izango da.

3.– Dekretu honetako 21.2 artikuluan ezarri den eskolatze-aldi malguagoa aplikatzen zaien ikasleen kasuan, aipatutako egokitzapenaren diseinuan artikuluko honetan jasotzen ez diren sustapen-irizpideak ezarri ahal izango dira.

30 bis artikulua.– Matrikulen bateragarritasuna Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan eta beste modalitate edo irakaskuntza batzuetan.

Lanbide Heziketaren heziketa-ziklo bateko erregimen presentzialeko matrikula, modalitatea edozein dela ere, bateragarria izango da beste heziketa-ziklo bateko matrikularekin, eskaintza edo modalitatea edozein dela ere, baldin eta ez badira lanbide-modulu berekoak eta ordutegiak bateragarriak badira. Halaber, beste irakaskuntza ofizial eta presentzial batzuekin bateratu ahal izango da ordutegiak ere bateragarriak badira.

VIII. KAPITULUA

INFORMAZIO ETA ORIENTAZIO PROFESIONALA

31. artikulua.– Helburuak.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren informazio eta orientazio profesionalak honako helburuak ditu:

1.– Ikasketa horien eskaintzen, ezarritako ikasketa-baldintzen eta sartzeko aukeren berri ematea eta zabaltzea, informazioa eskatzen duten pertsonen inguruabarrak, beharrianak eta interesak kontuan hartuta.

2.– Ikasteko aukerei buruzko informazioa eta orientazioa ematea, bai eta lehenengoz laneraten edo berriz laneraten laguntzeko, enplegua hobetzeko eta lan-merkatuan lana aldatzeko prestakuntza-bideei buruzkoak ere.

3.– Titulu akademikoei buruzko informazioa ematea eta lan munduan eskatzen diren gaitasun eta prestakuntzak lortu, ebaluatu eta egiaztatzeari buruzko orientazioa ematea.

4.– Ikaslea orientatzea, hobeto egokitzen zaizkion prestakuntza-zikloen berri emanez; horrela, aukeratzeko duenari esker lanbide-moduluetako helburuak gainditu ahal izango ditu eta prestakuntza-ziklo osoa amaitu ahal izango du, inoren osotasun fisikoa arriskuan jarri gabe, ez bere ez besteena.

32. artikulua.– Antolamendua.

1.– Hasierako, Lanerako eta Etengabeko Lanbide-heziketan informazioa eta orientazioa emateko zerbitzuak eta baliabideak are eraginkorragoak izan daitezen, gai honetan eskumena duten sailek lankidetzaren protokoloak ezarriko dituzte emango diren zerbitzuak zehazteko eta beren zein beste erakunde publiko eta pribatu batzuen eta, batez ere, gizarte eragileen zereginak zehazteko.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, bere eskumenen esparruan, informazioa emango die hezkuntza-sistemako ikasleei, horien familiei eta orokorrean gizarte osoari. Halaber, laguntza eta errefortzu moduan beharrezkoak diren neurriak eta bitartekoak ezarriko dira beharrezko informazioa, orientazioa eta aholkuak emateko gizartearen baztertuta geratzeko arriskua

duten taldeei, hezkuntza-sistema behar baino goizago uzten duten pertsoneri, lanbide-prestakuntza eskasa dutenei, langabetuei, etorkinei edo ezinduei.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Lanbide-jarduera arautuak.

Lanbide-profila eta lanbide-jarduera arautua lotzen dituzten Lanbide Heziketako tituluetan, araupetze horretarako akordioak bultzatuko dira administrazio eskudunen artean, posible izan dadin jarduera horretan jardutea behar den titulua egiaztatuta. Akordio horien ondorioz, hezkuntza-eskumena duen sailak behar beste egokitzapen sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko heziketa-zikloen curriculumetan; erraztasunak ematea izango da egokitzapen horien helburua Lanbide Heziketako tituludunak jardunean zuzenean has daitezen. Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum horiek ezartzen dituzten dekretuetan, titulu bakoitzak zer lanbidetako jardunerako sarbidea ahalbidetzen duen adieraziko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Behin-behinean, hau da, harik eta lan-esperientziaren edo prestakuntzako bide ez-formalen bidez lortutako gaitasun profesionalak kreditatzeko prozedura ezarriko duen araua argitaratu arte, indarrean jarraituko du Lanbide Heziketa Berezituko Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko probak arautzen dituen 70/2004, apirilaren 27ko Dekretuaren 7. artikuluan jasotzen den ebaluatzeko eta aitortzeko ahalmenak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da azaroaren 22ko 447/1994 Dekretua, lanbide-heziketako irakaskuntzen antolamendu orokorra eta bere tituluei buruzko artezpideak ezartzeko dena.

Indargabetuta geratzen da, Lanbide Heziketari dagokionean, apirilaren 29ko 97/1997 Dekretua, batxilergoko eta lanbide-heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraibideak arautzen dituena.

Indargabetuta geratzen da apirilaren 27ko 70/2004 Dekretua, lanbide-heziketako teknikari eta goi mailako teknikari tituluak ateratzeko probak arautzen dituena, bere 7.artikulua salbu.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko otsailaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.